

Euskal Museoak gonbit egiten dizu udari abegi ona egin diezaiozun, klaustro estali berria eta inauguratu berri duen *Fu la Spagna!* erakusketa ezagututa



Bizkaiko erakundeak bere lagunekin batera egin nahi du topaketa pribatu bat datorren ostegunean, ekainaren 21ean, 19:00etan.

Ekitaldian, klaustroa eta erakusketa ezagutzeko bisita gidatua egingo da Jardueraren ondoren, topa egingo da, txakolin eta otordu txiki batekin

Uda heldu, eta hamaika jarduera eskainiko ditu Euskal Museoak; horregatik, bere lagunekin topaketa bat egitea erabaki du, ospakizun giroan, klaustro estali berriaz zein inauguratu berri duen *Fu la Spagna! Espainiako Gerra Zibilari buruzko begirada faxista* erakusketaz modu pribatu eta esklusiboan gozatzeko. Hitzordua datorren ostegunean, ekainaren 21ean, 19:00etan, izango da. Bertaratzeko, ez da beharrezkoa izango aurretiazko hitzordua izatea.

Espazio berri bi horietan bisita gidatua egin ondoren, Euskal Museoak otordu txiki batera gonbidatu nahi ditu bere lagunak, eta txakolinarekin topa egitera, gugan konfiantza izandako urte ugariengatik.

Zuon guztion zain egongo gara ekainaren 21ean, Euskal Museoaz oso modu berezi batez gozatzeko! Ez ezazu hutsik egin!